

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA ERDARATIKO DEITUREN IDAZKERAZ

Maiz aski erdaratiko deiturak euskal grafiaz idatziak ikusten dira, hala nola *Kaballero*, e.a. Era berean, euskal hitz ondarekoak ez diren izen arrunt ugari agertzen dira bazterretan euskal grafiaz jantziak, adibidez, *kaña*, *intsumiso*, *txupinazo*, e.a.

Gertakari hauen aurrean, eta Erakunde honi egiten zaizkion galderak kontuan izanik, Euskaltzaindiak honako hau nahi du aditzera eman:

1. Euskal jatorri garbia duten izen propioei dagokiela, gizabanakoak badu bere deiturak euskal grafiaz idazteko eskubidea, adibidez, *Etxeberri*, *Ezkerra*, *Karrikaburu*, *Arregi*, e.a., *Echeverri* edo *Echeberri* edo *Etcheberri* edo *Etcheverry* idatzi beharrean, orobat *Ezquerria*, *Carricabourou* edo *Carri-caburu*, *Arregui* edo *Arreguy* edo *Harreguy* formen ordeztu. Forma horiek, jakina denez, ofizial bihurtu daitezke, indarrean den legeriaren arabera.

2. Euskal Herrikoak ez diren deituretan, zein-nahi den ere jatorrizko hizkuntza. Euskaltzaindiak ezin du bere irizpena eman euskal grafia-
ren alde, hain zuzen ere hizkuntza eta kultura horiei diegun begiruneagatik. Ez zaizkigu bidezko iruditzen, bada, *Kasenabe* (*Cazenave* edo *Casenave*), *Balberde*, *Karballo*, e.a. Halaber ez ditugu onetsiko *Mitxelín* eta bestelako idazkerak.

3. Ezaguna da asko direla arazoak euskal jatorriko deituren idazkeran. Euskaltzaindiak aurrera darama deiturei buruzko ikerlan bat, izendegi bat argitaratzeko asmoz, euskaldun hiritarra ematen zaion aukeraz jakinaren gainean egon dadin.

4. Hala ere, Euskal Herriko jatorria ez duen deitura norbaitek aldatu nahi badu, *Cifuentes*, *Sanchis* edo *Vaillant*, adibidez, halakoak ez du Euskaltzaindira zuzendu behar.

Bilbon, martxoak 15, 1993.

DECLARACION DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA SOBRE LA GRAFIA DE LOS APELLIDOS DE ORIGEN NO VASCO

Con frecuencia se observa el empleo de apellidos de origen no vasco, en los cuales se hace intervenir la grafía del euskara. Así, por ejemplo, se han podido ver *Kaballero*, etc. Este es un hecho paralelo con la profusión de grafías pretendidamente vascas en nombres comunes que no pertenecen al acervo euskaldun, como *kaña*, *intsumiso*, *txupinazo*, etc.

Ante estos hechos, y por las numerosas consultas recibidas en esta Institución, la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia desea manifestar ante la opinión pública lo siguiente:

1. Por lo que toca a los nombres propios, en los apellidos de claro origen vasco, es un derecho que asiste al individuo al escribirlos según la ortografía vasca, v. g., *Etxeberri*, *Ezkerra*, *Karrikaburu*, *Arregi*, etc., en lugar de *Echeverri* o *Echeberri* o *Etcheberri* o *Etcheverry*, *Ezquerria*, *Carricabourou* o *Carricaburu*, *Arregui* o *Arreguy* o *Harreguy*. Estas formas, como es sabido, pueden ser elevadas a categoría oficial, de acuerdo con la normativa vigente.

2. En aquellos apellidos de origen no autóctono, cualquiera que fuere la lengua de origen, Euskaltzaindia no puede dictaminar su conversión a la grafía vasca, y ello por una elemental razón de respeto a esas lenguas y sus pueblos. No consideramos procedentes grafías como *Kasenabe* (*Cazenave* o *Casenave*), *Balberde*, *Karballo*, etc. Del mismo modo, la Academia no puede amparar grafías como *Mitxelin*, etc.

3. Es conocido que no son pocos los problemas en la grafía de los apellidos de formación vasca. Euskaltzaindia lleva adelante un estudio sobre apellidos, con vistas a un nomenclator general, de modo que el ciudadano esté informado de la posibilidad que se le ofrece.

4. Si alguien desea, pese a todo, cambiar la grafía de su apellido de origen no vasco, por ejemplo, *Cifuentes*, *Sanchis* o *Vaillant*, no es Euskaltzaindia la instancia a la que debe acudir.

Bilbao, 15 de marzo de 1993.